

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- **BALIABIDE FISIKOAK:**

Gure produktua beste biren nahasketa da, hau da, kontenedoreak ekoizten dituen enpresa bati eta prentsak ekoizten dituen beste bati erosiko dizkiogu. Orduan, bi produktu horiek ekoizteaz haiek arduratuko direnez, guk soilik horiek bateratzeaz arduratu behar gara eta horretarako, taldeko kide batek Gasteiztik hurbil dagoen herri batean duen biltegi baliatuko gara. Bulegotzat, biltegi horretako txoko txiki bat erabiliko dugu.

Hasiera batean ez dugu makina berezirik erabiliko, baizik eta guk erraztasunez egin ditzakegun lanak direnez, herraminta hutsekin egingo ditugu.

Produktuak fabrikatik bezeroarengana garraiatzeko, garraio enpresa bat izango dugu azpikontratatuta.

Ez dugu salmentarako gune fisikorik izango, besterik gabe gure web-gunearen bidez egin ahalko dira erosketak.

Sistema informatikoa, gure telefono eta ordenagailuetaz osatuko da.

- **BALIABIDE INTELEKTUALAK:**

Gure ideia patentatu egingo dugu, kompetentziarik ez izateko.

- **GIZA BALIABIDEAK:**

Badugu taldean saltzeko gaitasun handia duena eta bezeroak lortzeko erraztasuna duena. Gainera, produktua nola hobetu eta eraldatzeko ikertzeaz arduratuko den beste bat. Eskulanean trebea den eta lan fisikoa egiteko zailtasunik izango ez dituen beste lan talde bat ere badugu.

- **FINANTZA-BALIABIDEAK:**

Gure proiektuak aurrera egiten duenean, agian finantzazio pribatua bilatuko dugu, baina hasiera batean ez.